

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Goberu Kontseiluaren 206/2024 Erabakia, apirilaren 16koa. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura diharduten langileen ordainsariei ehuneko 0,5eko igoera osagarria aplikatzeari 2023rako, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak oinarri hartuta

Ordainsariak direla-eta funtzio publikoan indarrean dagoen lege araubidea hauexek arautzen dute: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren testu bategina onartzen duenak; Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legea eta hura garatzeko zenbait arau, eta, bereziki, Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Ordainsariei buruzko uztailaren 30eko 207/90 Dekretua.

Arau horiekin bat etorritik, oinarritzko ordainsarien (soldata, hiru-tekoak eta aparteko ordainsariak) zenbatekoa Estatuko aurrekontu orokorren legeak zehazten du; destino-osagarriaren zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen legeak, eta berariazko osagarria eta ordainsari osagarriak Euskadiko administrazio publikoek.

Hala, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legeak 19. Bi artikuluan ezartzen du sektore publikoaren zerbitzuko langileen 2023ko ordainsarien zenbatekoa, honela:

“2023. urtean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariak ezin izango dira ehuneko 2,5 baino gehiago igo 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, alderatutako bi aldiatarako homogeneotasuna kontuan hartuta, bai langileen kopuruari dagokionez, bai horien antzintasunari dagokionez.”

2. Halaber, hala badagokio, honako igoera hauek aplikatuko zaizkie 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:

a) Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPI) bilakaerari lotutako igoera. 2022ko IPCAren eta 2023ko iraileko IPCA aurreratuaren batura ehuneko 6 baino handiagoa bada, gehienez ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria aplikatuko da.

Ondorio horietarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) 2023ko iraileko IPCA aurreratuaren datuak argitaratu ondoren, igoera hori aplikatzea onartuko da Ministro Kontseiluaren erabaki bidez, eta erabaki hori BOEn argitaratuko da.

b) Barne Produktu Gordinaren (BPGd) bilakaera nominalari lotutako igoera 2023an. BPGd nominalaren igoera Gobernuak aurrekontu-lege hau egiteko erabili den koadro makroekonomikoan zenbatetsitakoaren berdina edo handiagoa bada, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera osagarria aplikatuko da.

Ondorio horietarako, EINek 2023ko BPGd-ren aurrerapen-datuak argitaratu ondoren, igoera horren aplikazioa onartuko da Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez, zeina BOEn argitaratuko baita “

19. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko. 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen bi.1 Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legearekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 21eko 139/2023 Erabakiaren bidez, 2023rako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzuko langileen ordainsariak ehuneko 2,5 igotzea onartu zen, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak oinarri hartuta, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Era berean, 19. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak betetzen direla egiaztatu ondoren, 31/2022 Legearen bi.2.a) artikulua bidez, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 21eko 745/2023 Erabakiaren bidez, 2023ko ordainsarien ehuneko 0,5eko igoera gehigarria onartu zen.

Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) 2023ko BPGd-ren aurrerapen-datuak argitaratu ondoren, egiaztatu da urte horretan BPG nominalaren hazkundeak gainditu egiten duela Gobernuak 2023ko Estatuko aurrekontu orokorren legearekin batera aurkeztu zen koadro makroekonomikoan egindako aurreikuspena.

Bestalde, Ministro Kontseiluak, 2024ko otsailaren 6an egindako bileran, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien ehuneko 0,5eko igoera osagarria baimendu du, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorre buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bos.2.b) artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Era berean, 2024ko otsailaren 27an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu da Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erki-degoko sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien 2023rako igoera, abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 122.2.a) 1. artikuluan araututako lanpostu-mailako osagarria eguneratuz, 2022. urteari dagokionarekin alderatuta ehuneko 0,5eko igoerarekin.

Arabako Lurralde Historikoaren 2023rako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 20ko 23/2022 Foru Arauaren 25.1 artikulua honako hau ezartzen du: «Arabako Foru Aldundiko eta erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen 2023rako ordainsari osoak, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, foru-arau honetan aurreikusitakoaren arabera igoko dira, alderaketaren bi aldietarako homogeneotasun baldintzetan, bai langileei dagokionez, bai haien antzintasunari dagokionez, eta Estatuko oinarrizko legerian ezarritako mugak gainditu gabe».

Bestalde, abenduaren 20ko 23/2022 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarriak honako hau xedatzen du: «2023ko ekitaldirako ordainsarien igoera ezartzen da. Igoera hori Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak eta horretarako baimena duten foru-sektore publikoko gainerako erakundeen organo eskudunek zehaztuko dute, eta, gehienez ere, Estatuko oinarrizko legerian muga orokor gisa ezarritakoa izango da.»

Langileen ordezkariekin negoziatu ondoren, eta aurrekontu-zuzkidura nahikoa dagoenez, 2023. urterako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura dauden langileen ordainsarien ehuneko 0,5eko igoera osagarria aplikatu behar da, 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorre buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bos.2.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Egitura eta Funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretuaren 11.g) artikuluan xedatutakoaren arabera, Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuari dagokio, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluko presidentea den aldetik, urtero proposatzea Gobernu Kontseiluari erakunde horretako langileen ordainsari-araubidea eta soldata-baldintzak aplika daitezela. Hala, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2024ko apirilaren 10ean egindako bileran, Foru Gobernu Kontseiluari proposatu dio onar dezala Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzuko langileen ordainsarien ehuneko 0,5eko igoera osagarria. Era berean, martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8.1.b) .6 artikulua Gobernu Kontseiluari esleitzen dio foru-administrazio honen zerbitzuko langileen lan-baldintzak zehazteko eta onartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

ERABAKITZEN DU

Lehenengoa. 2023. urterako, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzuko langileen ordainsarien ehuneko 0,5eko igoera osagarria onartzea, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarrietan oinarrituta.

Bigarrena. Erabaki honen aurka, argitaratu eta biharamunetik aurrera, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, edo, bestela, berraztertzeko errekurtsoa, hilabeteko epean eba-zpena eman duen organoaren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorrituz, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 16a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

GORKA URTARAN AGIRRE

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ